

“Zazpiak Bat” gaia XIX. mendean

(The “Zazpiak Bat” topic in the 19th century)

Altzibar, Xabier*

Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak.

Sarriena, z/g.

48940 Leioa

* Euskaltzain urgazlea

Eusko Ikaskuntza

Ikaslan honetan euskal literaturan "Zazpiak Bat" gaia nola sortu eta agertu izan den Lore Jokoen giroan aztertu nahi izan dut. Euskal Herri osora eta atzerriko Euskal Herrira ere hedatu zen gaia eta goiburua da, bereziki poetek kantatu zutena. Euskara zeukaten zazpi probintzien arteko lokarri nagusitzat, zazpiak haurride sentiarazten baitzuten.

Giltz-Hitzak: "Zazpiak Bat". Euskal Literatura. XIX. mendea.

Este trabajo tiene como objeto estudiar la aparición del tema "Zazpiak Bat" ("Las Siete Provincias Unidas") en la literatura de expresión vasca y, en concreto, en el ambiente de los Juegos Florales impulsados por A. D'Abbadie. La extensión del tema literario, cantado sobre todo por los poetas, y a la vez lema, a todas las provincias vascas y a la emigración, refleja el sentimiento de unión de los vascos en esa época. El idioma vasco común constituía el nexo más importante del mismo.

Palabras Clave: "Zazpiak Bat" ("Las Siete Provincias Unidas"). Literaturua Vasca. S. XIX.

Le but de ce travail est d'étudier l'apparition du thème "Zazpiak Bat" ("Les Sept Provinces Unies") dans la littérature d'expression basque et, plus précisément dans l'environnement des Jeux Floraux fomentés par A. D'Abbadie. L'extension du thème littéraire, chanté surtout par les poètes et, en même temps devise, à toutes les provinces basques et à l'émigration, reflète le sentiment d'union des basques pendant cette époque. La langue basque commune constitue son lien le plus important.

Mots Clés: "Zazpiak Bat" ("Les Sept Provinces Unies"). Littérature Basque. XIX.è Siècle.

Duela mende bat euskaldunek “Zazpiak Bat!” oihukatu eta kantatu zuten, eta ikurrin eta leku publikoetan goiburu gisa ezarri. Batasun sentimentu bortitz batek sortu zuen goiburu edo dibisa hori.

Txosten honetan, lehenik, Zazpiak Bat asmatu baino aitzinagoko ameslari, azti-begi, euskal tradizioaren zuzpertzaille eta euskal batasunaren lehen urratsetatik abiatuko gara. Ondoren, haren sorrera eta agerpena –gizartean– azalduko dugu. Eta gero, bereziki, nola agertu den euskal literaturan, duela mende bat. Bukatzeko, xoilki aipatuko dugu nola izan duen segida Iparraldeko poeta, politikari eta mugimendu euskalerrri– eta euskalzalean.

Eskertu nahi dut J. Haritzelhar euskaltzainburua, gaia eskaintzeagatik. Eta P. Urkizu, soneto akrostiko bat eta xehetasun batzuk ezagutarazi dizkidalako.

1. Aitzindari-ameslarien artean Larramendi da agian zaharrena. Gipuzkoar honek zazpi probintzien batasuna amestu zuen, “Republica de las Provincias unidas del Pirineo” delakoa, oraindik ametsetakoa baino ez zena, non guztiek ikasiko zuten euskara eta mintzatuko (*Sobre los fueros de Guipúzcoa*, 70-71. or., Sociedad de Ediciones y Publicaciones, 1983). Artean Adiskideen Batzarreak Irurac Bat goiburua beretzakotu zuen: hiru probintzien arteko lotura handiagoa bilatzen zuten gure herriko jaun argituek.

Aipagarria iruditzen zait J.A. Zamakola ere, XIX. mendeko bigarren hamarkadan, Euskal Herri osoko historia idatzi baitzuen, garaiko ikuspegi sorterrizalea nabarmen erakutsiz, lehen aldiz (*Historia de las Naciones Bascas de una y otra parte del Pirineo Septentrional y costas del Mar Cantabrico desde sus primeros pobladores hasta nuestros días. Con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los estados Bascos que hoy existen. Dividida en varias épocas*. Escrita en español. Auch, Viude de Duprat, 1818).

Geroxeago, mendearen hirugarren hamarkadatik aurrera, hor dira Zazpi Euskal Herriak aipatzen dituztenak: Xaho, Hiribarren, D’Abbadie. Xahok, 1836an, D’Abbadierekin batera, Gramatika “Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner” eskaintzen die. D’Abbadiek ba omen ditu beste aipamen batzuk ere. Hiribarrenek *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotxa eta hari darraicon* (1853) neurtitz liburua argitaratu zuen.

L.L. Bonaparte eta haren ingurukoek euskalki desberdinak ezagutzeko eginiko lanak ere lagundu zuteen euskararen funtsezko batasunaz ohartzeko. Beraz euskal intelektual eta idazleak ditugu Zazpi Euskal Herrien batasunaren ideia aitzindari.

XIX. m. ondarrean, “Laurak Bat” izeneko elkarteak sortu eta zabaldu ziren Hegoaldean eta atzerrian (Buenos Aires, La Habana nahiz Madrilen). Eta Iparragirrek “Laurak Bat” batasun leloa kantatu zuen. “Laurak Bat” goiburuak Zazpiak Batera heltzeko zubi-lana egin zuen.

Atzerrian berriz, Xarriton-en arabera, 1884an Montevideon “Euskaldun guziak bat” elkar-tea agertu zen, iraun ez zuena; eta 1887an Mendiaguek bere anaiarekin “Euskaldunak Bat” deitu elkar-tea sortu omen zuen. Hortaz, Zazpiak Bat goiburuak XVIII. mendeko Irurac Bat eta XIX.eko Laurak Bat gairitu zituen.

2. Zazpiak Baten sorrera eta agerpena euskal gizartean.

Zazpiak Bat esaera, goiburu edo ikurrizaren (gazt. *lema, mote, divisa*, fr. *devise*) asma-tzailea D’Abbadie bera izan ote zen edo Zaldubi edo Donostiako Euskal-Erria aldzkarikoren bat edo beste norbait, ziur ez dakit, nik behintzat. Dena dela, euskal poetek eta kargudun edo politikari Euskal Herrizaleek elkar hartuta bultzatu zutelara dirudi. Eta Lore Joko edo Euskal

Jaietan erabili zuten: poetek festa horietara aurkeztutako kantuetan, eta politikariek beren jendaurreko agerpen, oihu eta protokoloetan. Zazpi eskualdeetako euskaldunak lehen aldiz biltzen ziren aldia zen, agian.


Zazpiak Bat Iparraldean pizten da baina laster Hegoaldean eta atzerrian zabaltzen su ta gar. Zeren kinka historiko larrian sortu baitzen: euskara galduz zihoan Ipar eta Hegoan, Estatu eta administrazioen zentralismoa itotzen ari zen Euskal Herria alde guzietarik. Hegoaldean 1876an foruen azken arrastoak galdu eta muga Ebrotik Hendaiara ekarri ondoren, euskara galtzeko arriskuaz jabetu ziren. Kanpionek bere lau literatur euskalkien gramatikaren oharrean dioenez, “zuen lege beneragarriak galdu ziñituzten atzo. Zorigaitz handi bat da hau. Ez ezazue arren galdu orain zuen izkuntz paregabea”. Egoera latz horretan “Zazpiak bat!” aldarrikatu zen.

Zazpiak Bat goiburu, lelo edo dibisa bihurtu zen 1892ko Donibane Lohitzuneko Euskal Jaietan, abuztuan ospatu zirenak (“Fetes de la tradition Basque”). Jai hauetan aipatu goiburua agertarazi zuten jendaurrean. Hona zer izkiriatu zuen Hiriart-Urrutik egun horretako kronika egitean:

“*Zazpiak bat!*”, horra zer dugun irakurtu Donibaneko Eskualdun buruzagiek beren etxe aintzinetan, bai eta ere bide bazterrean, bi aldetarik hedatuak zituzten bandera ederretan. Zazpiak bat: hitz berak ziren ageri, erran badezaket, harat-hunat elgarri irriz eta agurka bezala zabiltsan begitharte alegera guzietan. Zazpiak bat: ez zen han bertze solasik. Zazpiak deitzen zituzten bertze orduz, eta oraino ere hor dira behin bizi, zoin beren eremuetan, zoin beren jite, itxura, mintzaira, aphaindura eta bertze egite bereziekin, Eskual-herriko zazpi eskualde edo probentzia zaharrak, lau espagnol eta hiru frantses(...). Zazpi probentzia horien banderak han ziren, oihal ederrez eginak, urhe eta zilharrez ederki aphainduak, bakhotxak erdi erdian bere izenarekin herri bereko gizon batek ekhartzen zuela, haga urheztatu batetarik dilindan. Eder zen ere ikus-tea, alde orotarik multzoka ethorria, Espagnol eta Frantses Eskualdun gazterria; oroz gainetik Xuberotarrak; eta Gipuzkoano haur gazte batzu, xuri gorritz bezti, bi egunez jende guzia xoraturik atxiki baitute” (*Eskualduna* 274 1892.8.26).

Zazpi eskualdeetako ikurrinak airean hedatu eta, gainera, zortzigarrena, euskal federazioaren banderatzat hartua, diseinatu zuten, purpura kolorezkoa –arbasoen odolarekiko itxuragatik–, zazpi eskualdeen izenak batean zeduzkalarik (ibid.). Eta euskal bandera honetan Zazpiak Bat goiburua ezarri zen.

Bestalde, armarrria asmatu zuten eta han ere Zazpiak Bat esaera ezarri. Geroxeagoko iturri baten arabera, irudian zazpi eskualdeetako armarrriak agertzen ziren, erdian Nafarroakoa, kateekin, bi Nafarroak batuta –beraz sei– (“La tradición



del Pueblo Basco. Fiestas en San Sebastian, Tolosa y Villafranca”, Euskal-Erria, 855, t. L, 1904-IV-10, 312-313)¹. 1904an Donostia, Tolosa, Ordiziako jaien egitarauan armariaren irudia agertzen da.

Euskal Jaiak ospatzen ziren herriko udaletxeko balkoian ere Zazpiak Bat goiburua ezarri zuten, adibidez 1903an Irungo udaletxean. Pavia deputatuaren arabera, belarrien gozagarri zen lelo hura (Euskal-Erria, 1903, II, 290-300). Irundarrek, muga ondoan izaki, goiburuari zioten atxikimendua erakutsi zuten hasieratik.

Donibaneko euskal festetan (1892) D'Abbadiek mintzaldiñoaren ondoren topa egiterakoan, basoak eskuan, Zazpiak Bat! oihu egiteko ohitura ekarri zuen². Eta ohitura horrek segida izanen du ondoko Euskal Jaietan.

Adibidez 1897an Donibane Lohitzunen Lizarriturry Gipuzkoako aldundiaren ordezkariak, Goyhenetche auzapezaren ikaskide izana Baionan, ohiko mintzaldi laburraren ondoren topa egin zuelarik. Goyhenetche auzapezaren arabera, Gipuzkoako aldundiari eskerrak eman behar zitzaizkion muga politikoak ezabatzearen aldeko lanagatik eta euskaldun jendakia eta euskal haurrideen bilkura sorterriaren aldekoa antolatzeagatik, hola Louis XIV.aren “Il n’y a plus des Pyrénées” gauzatzuz (*La Tradition au Pays Basque*, Elkar, 1982)³. Halaber 1903an Iruneko Euskal Jaietan Pavia gipuzkoar deputatu jaunak hitzaldiaren ondoren topa egitean⁴.

1. Ondoko azalpena ematen da:

EXPLICACION.

Iniciada la idea por el diputado provincial Sr Pavia y apoyada por los demás individuos que forman la Corporación provincial, es evidente prueba del amor que profesan al país basco.

La portada lleva las armas de las siete provincias bascas y hasta en su colocación se descubre el simbolismo de la fiesta.

En el centro del grabado aparecen las armas iguales de las dos Nabarras, de la española y de la francesa. En una obra de unión no podían hacerse separaciones y las dos Nabarras van unidas; el mismo escudo tienen y en ellas, perteneciendo a dos distintos estados, se realiza, en su escudo cuando menos, el ideal de esa unión, de esa confraternidad a que aspiramos.

El escudo de las dos Nabarras, sostiene los de las tres provincias bascongadas de España, Guipúzcoa en medio, Bizcaya y Alaba à los lados. En la parte inferior se ven à derecha é izquierda de las cadenas nabarras, las armas de Labort y Soule, unidas por el significativo lema Zazpiak-bat”.

2. “Le toast de M. Antoine d’Abbadie” au banquet de St Jean de Luz: “Laissez-moi vous parler des pasteurs Saho chez qui j’ai vécu en Afrique (...). Ils ont une maniere de voter qui vous intéressera peut-etre par sa bizarrerie (...) votaient publiquement. Ils tiraient au sort trois électeurs du second degré qui nommaient les maires et autres fonctionnaires”. Eta Webster aipatuz, dio: “M. Webster, l’historien impartial de nos institutions, a démontré que la constitution anglaise,(...) doit son origine au *for basque*”. Toparen amaieran: “Chers amis, joignez vos voix à la mienne déjà éteinte et crions tous ensemble: *Zazpiak bat!*” . (*Eskualduna*, 278 “Ehun Urthe”).

3. Lizarriturryren topa egitearen amaiera: “Je bois enfin à la langue, aux traditions, en un moit à la race de ceux qui, avec juste fierté, se disent les fils de *Zazpiak-Bat* et servent de trait-d’union entre les deux nations, faites pour toujours s’entendre, et s’aimer –La France et l’Espagne”, id. La Tradition du Pays Basque, 52. or, Euskal-Erria, 1897, II, 179. or.

4. “El señor Pavia dijo (hitzaldia, eta ondoren brindando) Y ahora, Sres, brindemos por todos los hijos de la *Euskal-Erria*; lo mismo por nuestros hermanos de allende el Pirineo, que a pesar de las corrientes niveladoras que tratan de arrastrarles han sabido conservar nuestro milenario idioma, (...) que por nuestros hermanos del antiguo reino de Navarra, Señorío de Bizcaya,(...). Brindemos también por esos otros hermanos nuestros (...) de America (...) ojalá seas muchos en número los que el año próximo vengais a saludarnos en el Euskal-batzarre, en la Fiesta de la tradición que la hospitalaria Guipuzcoa celebrará en honra de los euskaldunak todos, que una vez más consagrarán el lema que hoy campea en el balcón de esta casa del pueblo y cuyas palabras tan gratamente suenan en nuestros oídos: ¡Zazpiak Bat!”. (Grandes aplausos). (*Euskal-Erria*, 1903, II, 290-300).

Euskal Jaietako topa egiteetan atzerriko euskaldunak beti ziren gogoan.

Euskal Festetan D'Abbadiek “euskaldun makila” (euskaldunaren ezaugarri, harentazat), buruan zilarren gainean *Zazpiak Bat* hitzak zekartzana, ematen zion urtero bertsogile hobere-nari. Eta ohitura hori jarraitu zuen haren andreak ere 1901 arte (*Eskualduna* 732, 1901).

Beraz Zazpiak Bat horrek 1892ko Donibaneko Euskal Festetan eta D'Abbadieren itzalpe-an indarra hartu zuela garbi dago. Donibane Lohitzuneko ospakizun horiek bozkario egunak izan ziren, amets ederren sortarazleak. “Zazpiak Bat Ebrotik Aturrira”, “Zazpiak Bat Pirineoetatik itsasora”, egunen batean Euskal Herriak bere autonomia eta independentzia eskuratuko zituela eta holakoak amestu ziren⁵.

1892ko Donibane Lohitzuneko bestak kontserbadoreek antolatua dira, “xuriak” nagusi baitziren hor. 1894 eta 1897an ere ospatu ziren hiri horretan Euskal Jaiak, “Fêtes de la Tradition” ere deitu zituztenak. Horien antolaketa eta Zazpiak Baten zabalpenean, D'Abbadiez gainera, Donibane Lohitzuneko auzapeza nabarmendu zen, Goyhenetche mediku-a. Eta G. Berdeco, Ch. Petit etab.

Orobat, euskalduntasunaren ideologia edo ikuspegi tradizionalista nagusi agertzen da⁶. Hartan erlijioak esku berezia izan zuen: adibidez, zazpi eskualdeetako banderak elizkizune-tan benedikatu zituzten.

Hala ere, goiburu hark adierazten zuen batasun eta haurridetasun sentimendua, edo tradi-zioari jarraitzeko eta katea ez eteteko gogoia etab. zabalagoak ziren. Zazpiak Bat aipatzen duten gutziek azpimarratzen dute euskarak, batez ere, batzen dituela zazpi haurrideak, zazpi eskualdeak⁷. Izan zen, bai, errepublikar eta “gorririk”, Zazpiak Batekin edo euskaldunen hau-rridetasun sentimenduarekin bederen bat egiten zuenik (Elizanburu, Otxalde), bereziki atze-rrian (Mendiague, Goitino...), interes materialengatik besterik ez bazen ere⁸.

1892ko Donibaneko buruzagien hitzaldiak sorterrizaletasun sutsuz eginak dira, garaiko prentsak (*Eskualduna*, *Le Courier de Bayonne*) jasotzen duenez, eta horietan Zazpiak Bat oihukatu zen. Goyhenetche auzapeza A. Abbadieri zuzentzen zaion hitzaldian “gure tradizio-aren berrezartzaile” deitzen du Abbadie eta tradizioari errespetua ekartzea aldarrikatzen du, euskal jendakiak iraun dezan⁹.

5. “Notre seul cri, le verre à la main et en presence de M. d'Abbadie, a été “Zazpiak bat”. Oui, “Zazpiak bat”, tel est le rêve de notre vie (...). / Qui sait si les “Zazpiak bat” en surgiront pas un jour avec leurs frontières naturelles, avec les frontières qu'elles tiennent de la main de Dieu. / “Zazpiak bat” de l'Ebre à l'Adour! / “Zazpiak bat”, des Pyrénées à l'Océan. / Et ce jour-là, soyez-en persuadés, ce jour béni où sur le rive droite comme sur la rive gauche de la Bidassoua, notre cher “Pays Basque” recouvrerait son autonomie et son indépendance, nos aïeux, les Ibères et les Cantabres, tressailleraient de joie dans leur tombes et demanderaient à revenir sur la terre”. (C.H., “Les Fêtes de St. Jean-de-Luz”, *Courier de Bayonne* et *Eskualduna*, *Eskualduna*, 276, 1892).

6. “Avec un clergé national et des maires comme M. Goyeneche, le peuple basque peut encore envisager l'ave-nir avec confiance: à l'abri de ce qui subsiste de ses libertés religieuses et de ses libertés municipales, il peut sauve-garder l'originalité et l'indépendance de sa race contre les empiétements des nivelateurs et des tyrans” (“Les fêtes de la tradition basque”, *Eskualduna*, 379, 1894-VIII-31)

7. Ja 1890an G. Berdecok hizkuntzaren lotura azpimarratu zuen: “Basques de Saint-Palais et d'Irun, de Mauleon et de Saint-Sébastien, de St-Jean-de-Luz et de Tolosa, nous eussions prouvé ce que les étrangers ne savent pas assez, que nous sommes frères par cette langue qui fait notre orgueil...” (*Eskualduna*, 171, 1890-VIII-22, “Cigaliers et Félibres à San Sebastien”, *Nouvelles du Pays*).

8. Goytinoren *Kaliforniako Eskual-Herria* astekaria (1893-1898) euskara hutsean idatzitako lehena izan zen. “Jainkoa eta sor-lekua” zuen lelotzat. Goytinoren Euskal Herria “Bilbaotik Baionara edo Arabatik Aldudera” hedatzen zen eta haren kazetak aurrerakuntza moral eta materialaren berri ekarri nahi zuen.

9. “le dernier mot restera aux collectivités qui auront su, par un sentiment d'idéal élevé, conserver par le respect de la tradition l'intégrité de la race” (*Eskualduna*, 275, 1892).

Izatez, Tradizioaren Festak deitzen dituzte Euskal Jaiak. Hauek urtero ospatu behar omen lirateke Pirineoen alde batean edo bertzean, eta egunen batean Ameriketako haurriedak ere bilduko omen dira Ama Euskara elkarrekin gurtzeko eta haurridetasun eta batasun sentimentuz Euskal-Herriaren tradizioaren jaia ospatzeko¹⁰.

Goyhenetxe auzapezak, zuberotarrei euskaraz eginiko mintzaldian, garbiki adierazten du euskaldunen arteko lotura eta atxikimendu nahia:

“Mila bortz ehun eta hamabi artean, Eskualdun guziak elgarrekin lege beren azpian bizi izan dira. Eta nahiz geroztik bi erresumetarat emanak izan garen hirur mende huntan, ez dugu galtzerat utzi elgarren orhoitzapena eta atxikimendua.

Eskualdun arbola azkarrak hedatu ditu alde guzietarat bere erroak eta aldaskak (...). Eskual herritik urrun, urrun bizi direnek ere ez dute ahazten, badakigu, beren sorlek-hua. Ardura itzultzen dituzte begiak alde huntarat (...).

Begira detzagun, menderen mende, gure usaia zaharrak. Guziak arbaso beren haurrak garenaz geroz, atxik dezagun bethi guretzat, gure haurrentzat eta haurren haurrentzat Eskualdun artean behar den haurridetasuna, Eskual herriari guziek zor diogun amodioa. Biba Eskual-herria” (*Eskualduna*, 275, 1892).

Iribarne bikarioak –mezako predikuan– euskaldunek herri bat osatzen dutela esan zuen, eta kristau anaitasunak lotzen duela euskal jendakia. Eta mundu honetan ezin bazen nazio bakar bat osatu bestean bederen “zazpiak bat” elkarrekin bilduko zirela.

1894ko Donibaneko Euskal Jaiak are arrakastatsuagoak gertatu bide ziren¹¹. Jai horien kariatara, Charles Bernadou kaskoin jatorriko baionesak La Semaine de Bayonne-n argitaratu kazetalanak *Zazpiak Bat* izenburudun liburuan bildu zituen (Baiona, L. Lasserre, 1895). Bernadoux kapitulu bukaeretan ere errepikatu ohi du goiburua¹².

Jai horietan Zaldubik eginiko hitzaldiak Zazpiak Bat zertako sortu zen adierazten du:

“Ordean zertako, lehen ez bezalako jei edo besta edo bilzar handi horiek? eta bereziki orai, Frantzian segurik, Eskualduna kasik ez deusetaratua den denbora huntan. Huna zertako:

10. “devrait se célébrer chaque année pour créer et faire naître les amitiés, pour resserrer les liens de sympathie, dans une des localités principales de l'un et de l'autre versant des Pyrénées. Un jour viendra, peut-être, où nos pères d'Amérique, issues de notre sang, voudront eux aussi se joindre à nous pour vénérer ensemble notre Mère Euskara; célébrer avec nous dans un sentiment de fraternité et d'union féconde la fête de la tradition de l'Eskual-herria”.

11. “Elizatik lekhora trionfa handitan yuan izan da yendea plazarat, hiriko autoritateac orenen buruan, zazpi Eskualdun probentzietako banderez inguratuac”.

“Akabatzean (...) Musikak hasi duenean Guernikako arbolaren airea, yende guzia betan xutitu da, oihuka eta bibaka, xapel eta bonet guziak khanen eta makilen puntan (...) oihu eginez Biba Eskualdunak! Biba Eskual-herria!” (“Eskualdun bestak Donibane-Lohizunen”, *Eskualduna*, 379, 1894-VIII-31).

12. “Et tous, la main dans la main, de Pau à Bilbao et de Bayonne à Saint-Sébastien, à Pampelune et à Vitoria, nous pousserions d'un même coeur le vieux cri des Eskualdunac: Zazpiak bat!” (kapitulu baten bukaeran).

“(... nous vous disions: Non, ce peuple basque qui sait si fidèlement garder ses meilleures traditions et qui a tout ensemble le respect intelligent du passé et la vaillante activité américaine, n'est pas près de finir. Longtemps encore et toujours, langue et moeurs, culte et traditions, feront des sept provinces le vaillant et original Pays Basque: *Zazpiak bat*” (beste buru baten amaieran, 121. or.).

Preseski Eskualdun aspaldixko huntan gisa guziz galtzera dohanaren, arras ezeztazterat utzi gabe pitzarazteko, eta norapeit ere higiarazteko.

Gauza ahalkagarria baita, munduan orai bizi diren jendaia edo populueta den zaharrenak, hainbertze menderen buruan ukho egin dezan hola bere odolari...bere aztura zaharrerri...bere berexetasunaren ohoreari...bere eskuara mintzaia guzietan den ederrenari...bere lokabe edo libertate guzieri...bere izate osoari...hots! hitz batez bere eskualduntasunari.

(...) Behartu zaizkigu ehun bat urthe huntan eskola eta jakitate handiko gizon batzu, eta hetarik zenbeit arras arrotzak, guri erakutsi daukutenak nor garen gu eta guziz denboraz zer ginen gu.” (Eta Humboldt, Xaho, A. Abadia eta Goyhenetche aipatu ondoan, ondarrean hau dio:)

“Besta eder horiek badute bertze irakuspen bat eta bertze xede bat.

Frantziako eta Espainiako Eskualdun guziak, jendakia bat berbera gare. Hori ez zakiten edo gogoan gutiegi zabilkaten hainitzek.

Batasun horren agertzekoak eta tinkatzekoak dire besta hoietako gure bilkhideak.

Horrela, zazpi Eskual-herriak elgarri lotuz egiten dire Zazpiak bat. Laphurdi, Basanabar, Zibero, Frantzia aldetik; Nabar, Gipuzko, Bizkai eta Alaba, Espainia aldetik.

Herialde edo probentzia baxhotzak holako egunetan ditu denen bixtan irakusten hulako joko edo halako dantza edo bertze jostagailuetan dituen antze partikularrak...Segur loria baita orduan bazter guzietarik harat bildurikako Eskualdunek elgar hain amodiorekin ikustea, elgarrekin han alegeratzea, Eskualdun odol bereko garella ezagutzea.

Zein eder den orduan guziek, xutik eta buru has, elgarrekin kanta dezagun *Gernikako arbolaren* kanta sustagarria eta bertze kanta laphurtarrenaren oihu hau:

Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun
Guziak bethi bethi, gauden gu Eskualdun”.
Zalduby (*Eskualduna*, 380, 1894-IX-7).

1897ko Donibaneko euskal jaietan ez da hainbeste oihukatzen Zazpiak Bat, itxura batean. Hain burulan handiagoa egin zen. Euskal herriaren tradizioaz kongresua ospatu zen eta bildutako ikaslanekin *La Tradition au Pays Basque* liburua argitaratu (1899; berrargit., Elkar, 1982). Hortaz, badirudi ideologia tradizionalista sendoago finkatzen dela.

1902an, Katixima euskaraz irakastea debekatuko delako berria hedatzean Cl. d'Andurain zuberotarrak “Zazpiak Bat!” oihukatuko du gutun ageriko batean (*Eskualduna* 810, 1902-12-26).

1903an Zazpi eskualdeen senidetasuna ospatzeko jaiak eratzen ditu Gipuzkoako Aldundiak eta karia horretara Buenos Airesko euskaldunek bat egiten dute¹³.

13. “...por iniciativa de la Diputación de Guipuzcoa, se celebrará el día 21 de Agosto la gran Fiesta de la Confraternidad entre las 7 provincias hermanas, (...) fiesta a la que concurrirán los alcaldes de los pueblos de Euskalerra y a las que han sido invitados los que vivimos ausentes de la Patria”. “(...) significa el despertar de nuestra Nación, y el comienzo de su marcha hacia la reconquista de sus venerandos derechos y de su tradicional Independencia, (...)”. “El distinguido euskarófilo D. Florencio de Basaldua (...) ha iniciado el proyecto de conmemorar aquí con fiestas literario-musicales, las que se celebrarán en Guipuzcoa en homenaje a la confraternidad baskongada” (*La Baskonia*, 1903-4, t. XI, 386).

Zazpiak Bat dibisak politikan izaniko eragina aztertzea interesgarria litzateke. Kanpionentzat esannahi federalista¹⁴ eta S. Aranarentzat abertzalea¹⁵ izan zuela aipatuko dut soil-soilik. Eta Iparraldeko mugimenduetan eraginik izan duela, geroxeago aipatuko dudanez.

3. Zazpiak Bat literaturan. Egileak eta haien neurtitzak.

3.1. Zazpiak Baten aitzindarien artean Iparragirre, Klaudio Otaegi, Arrese-Beitia eta *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruko poeta batzuk, Karmelo Etxegarai etab. aipatu behar dira. "Laurak Bat" edo nafar-euskaldunen elkartasuna eta euskaldunen anaitasuna kantatu zuten, lehenbizikoek bereziki.

1879an Elizondoko Lore Jokoak ospatzen dira, Arrese-Beitiaren "Ama Euskeriari azken agurrak" lehen saria jasoz. Joko horietara Iparragirrek "Nafarroako Elkarkidari" izeneko bidaltzen du Santa Luciatik, ohorezko aipamena izanik. Kantu honek, "La Unión de los Navarros" izenburuarekin Kanpionek itzulia, Laurak Bat eta euskaldun guztien batasuna aldarrikatzen ditu (*Rev. Euskara*, 1879, t. II, 94-97). "Laurak bat" Zazpiak Baten aitzindari gisa agertzen da bertso hauetan:

"Zorioneko batasunean / Nafarrak gure anaiak / Bizi dirade lege onean / Gaur gustiz gizon ernaiak. / Guregatik on, errango badu / Etorkizunak kondairak, / Laurak bat beti!...maite alkatu / Izan euskaldun leialak" (1. ahap.). Bakearen alde agertzen da: "Anai arteko guda beti dá / Guztizko izugarriyá!.../ Arren anaiak!...errespetatu / Gizon guztien bizia" (3. ahapaldiaren amaiera).

"Nafarren elkargoari" zortzikoan (*Rev. Euskara*, 1879, 256, t. II) hau dio Iparragirrek: "Nafarren bide ona / gaur laurak batean / Da artu bear dana / Errien onean, / Euskaldun on guztiak / Betiko pakean, / Ez degu nai gudarik / Anaien artean." (4. ah.).

1880an Iparragirrek "Elizondoko batzarra" kantua argitaratzen du, non gauzarik maiteenak, hots, "Jaungoikoa ta fueroak" ez galtzeko aldarrikatzen baitu (*Rev. Euskara*, 1880, t. III, 14-6).

14. Kanpionek Zazpiak Bat gogoko zuen. 1920an Gernikan eginiko hitzaldi baten arabera, bere alderdiak goiburu bultzatu zuen, euskal konfederazioari bidea irekiz. Harentzat formula federalista zen, aranatarren "euskaldun denok bat"ekin bat ez zetorrena:

"el pueblo vasco, expansión étnica de una raza particular, llegó tarde. Pero ha llegado al fin, al sentimiento de su unidad nacional, rota y disgregada durante varios siglos en nacionalidades diferentes, ora existiendo de por sí, ora unidas entre ellas, ora confederadas a otras extranjeras de sangre e idioma. Los "Amigos del País" en el S. XVIII, vislumbra de parte de la unidad, la proclamaron debajo de la fórmula Irurac Bat. El partido euskaro de nabarra, en el XIX, preparó el camino de la confederación baska, estirando la fórmula hasta el *zazpiyak-bat*, y los modernos nacionalistas, instruidos por Arana y Goyri, desentendiéndose de la historia y partiendo de la noción de la raza, redondean el pensamiento unitarista, exclamando a su vez "euskaldun-denok-bat" ("Conferencia acerca del programa nacionalista, el separatismo y el antinacionalismo, dada en Guernica el 23-V-1920). A. Campion, *Obras Completas. Discursos políticos y conferencias*, t. XIII, Mintzoa, 1983).

15. S. Aranak ere zabaldu bide zuen Zazpiak Bat. Lafittek dioenez, "1894-eko euskal besta handietan, Donibane-Lohitzunen agertzen baita zazpi euskal herrien hamarria, "Zazpiak Bat" formularekin, Sabin Aranak galdatzen diote Bilboko egunkari abertzale ez diren batzuei (...) noiz ote ikasiko duten Bidasoaren Iparraldean bizi direla Lapurdi, Behe Nafarroa, Zuberoa, oro eskualdunak". P. Lafitte, "Sabin Arana Goiri eta Iparraldea", in *Obras Completas de Sabino Arana Goiri*, Sendoa, 1980, hitzaur.; ik. 358-359. or. 1897an ospatu Donibane-Lohitzuneko Fetes de la Tradition Basque deitu Euskal Besten karietara, Aranak hau zioen, Lafitteren arabera: "Herri ezdeusa abertzalerik sortzen ez dukano! Herri ezdeusa, hihaur hire garailearen jostagailu izaitezaz baizik axola ez haizen Herri gaixoa!" (ik. *Baserritarra*, 15-16, aip. *Obras Completas*, 1381. or.).

Arrese-Beitiaren arabera, Iparragirre Laurak Baten aldarrikatzaile izan zen. Honela dio otxandiotar santuginak “Homero euskalduna. Iparragirreri kanta”n: “¡O! Zeiñ ederki biltzen gaituan / Aritz zarraren oñean, / Lau probintziok anaiaturik / Batzen an erramapean, / Irme ta sendo elkaturikan / Lauok korapill batean, / Lauokin lazo bat egiñikan / Fuerodun izan gaituan, / Goza ditzagun zorion danak / Guraso zarren legean.” (10. ahap. Ik. *Felipe Arrese ta Beitia. Olerkiak*, Euskal Idazleak, Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1956, 215).

1879an Klaudio Otaegik “Buenos Airesen diran euskaldun leialai” eskaini zien bere olerkia, hiri honetan Laurac-Bat elkarteak euskal jaiak antolatu zituela-eta, nongo eta Alicante eta Turkiako uholdeengatik kaltetuei dirua emateko: “Zer pozkida aundia amak izango ez du / bere semeak urrun ikusten baditu / izkuntz ta lege zarrak ez ditezen galdu / alegiña egiten daudenean estu?” (16. ahap.). “Ama baten umeak gerade guziok, / eskutikan ez utzi iñoizere lau ok: / beti baldin bagaude alkarrekin lauorok / begiruna izango degu euskaldunok.” (17. ahap. Ik. P. J. Aranburu et alii, *Klaudio Otaegi (1836-1890)*, 1993, 216).

1881an Otaegik “Elkar gaitezen denok napar-euskaldunok!” olerkia aurkeztu zuen Irunen, saritua izan zena (*Rev. Euskara*, 1881, t. IV, 325-32). Etsaiak “Alper alperrik egingo ditu / Alegiñik andienak / Berezituak iduki naiian / Napar eta euskaldunak / Besarkatuak biziko dira / Emendik aurrera danak, / Oraindik intza izan dezaten / Arbola santuren zañak”. Azken ahapaldian dio: “Orregatikan alkartasuna / Nai genduke Euskalerrian, / Ala emen non Lapurdi eta / Suberorekin Prantzian: / Izkuntza bera duten mendiak / Jakintsuen iritzian, / Gaur edo bigar batuko ditu / Jaungoikoak etxadian.”

Arrese Beitiak 1880an “Bizi da Ama Euskera” olerkia ontzen du, Maulen saritua izan zena. Honetara dihardu 10. ahaldian: “Negar dabe egin Bizkaiak eta / Araba ta Gipuzkoak, / Negar dabe egin Naparrak eta / Euskeldun Franziaquak, / Orain arteko uts egitiak / Daukazuez parkatuak, / Baldin bazare aurrera izaten / Anaiok alkar artuak.” (*Rev. Euskara*, 1880, t. III, 299-304).

Donostiar eta gainerako gipuzkoarren artean aipagarriak dira V. Iraola, A. Arzak (“Bidasoatik aronz / Anayak izanik, / (...) pistuko da / Gernikako arbola”, *Eskualduna*, 171, 1890-VIII-22, Nouvelles du Pays), Lopez Alen, J. I. Uranga, K. Etxegarai...

3.2. Piarres Adame delakoak, hots, Elizanburuk aipamen berezia merezi du aitzindarien artean, nahiz ez darabilen Zazpiak Bat, Guziak Bat baizik (1882), bi aldiz lelo gisa errepikatuz, “Eskuara eta eskualdunak” kantuan (*Rev. Euskara*, 1882, t. V, 154-7):

“Gure aitaso kantabreak, / Mende zaharrenetan, / Gu garen gisa hedatuak / Alhor hautan beretan, / anaiak ziren “Guziak bat” / Mendien bi aldetan, / Jainkoa xoilki zen errege / Eskualdun etxoletan!” (3. ahap.). Eta azken ahapaldian: “Nola birundan arbolari/ Da segitzen itzala, / Bakotxak hala sor-lekhua / Bethi maitha dezala! / Anaiak gaituk Eskualdunak, / Orain ere oxala! / Jartzen bagine “Guziak bat” / Lehenago bezala!”.

Hortaz Elizanburuk lehenagoko euskaldunen anaitasuna orainaren eredugarri jartzen du eta sorterriaren amodioa aldarrikatzen.

Euskaldunen anaitasuna eta Euskal Herriaren amodioa goresten da ere hain ezaguna ez den Martin Hazpandarraren “Eskuara eta Eskual Herria” kantuan (Markinako Lore-Jokoetan aurkeztua, 1883):

“Eskualdun espainoler frantses eskualdunak / Gaude oihuz erranez: egun on, lagunak! / Gare oro anaiak eta bihotzdunak, / izana gatik atze edo ezagunak, / Elgar ongi maithatu nahiko dugunak. / Entzun guk erraiteko hemen ditugunak” (1. ahap.).

“Nabarrak, Gipuzkoak, Bizkaiak heiekin / Hirur populu eder bethi dute egin. / Hirur kon-datzen ere gare elgarrekin, / Laphurdi, Zuberoa, Baxenabarrekin, / Zuen idurikoak, berthute berekin, / Seiak guazen aitzina gure lenguaiekin!” (2. ahap. Ik. A. *Abbadiaren koplarien guduak*, 306, 326. or.).

Ohargarri denez, Martin Hazpandarraren iritziz sei populuk osatzen dute Euskal Herria, euskara galdu duela-eta Araba kanpo uzten baitu: “Alaba galdu dugu arreba maitena, / Oro ez bada ere, segur gehiena! / Eskualdun bihotzentzat, ai! hori da pena! / Gutarik urrunduko sekulan ez dena! / Dugun egin entseiu bainan handiena / Berriz zorigaitz berak ez gaitzan engana.” (3. ahap.).

Sorlekuaren amodioa darie haren bertso irudi idilikoz josiei: “O, zein Herri maitea den Eskual-Herria! / Airea da sana, osoki garbia, / Ausarki alhorretan arthoa, ogia, / Bai eta arboletan fruitu on, ezitia, / O, zer lakhet-lekhua, gutaz onhetsia! / Han dugu eremaiten bakean bizia.” (8. ahap.).

Bai eta Euskal Herritik urruntzeko beldurra (emigrazioa), hola euskara galduko delakoan: “Ez gaiten ez beraz, juan nunbeiko lurrera / Ahaidetarik urrun nigar egitera!” (11. ahap.). “Hola eginez ez da Eskuara galduko, / Arbasoen lenguaia ez da ahantziko, / Ondokoek gaituzte bethi laudatuko, / Gure Eskual Herrian zaikhu lakhetuko,/...” (azken ahap.).

Zazpiak Bat darabiltenen artean ondoko egile eta kantuak ditugu, gutxi gora-behera kronologiari jarraituz: Zaldubi, 1891ko soneto akrostikoa, 1894ko “Eskualdunak”, D’Ibarrart, “Arbasoek bazuten” hasten dena, Arrese Beitia, atzerrian Mendiague eta Otaño, eta hegoaldean, mende hasieran, J. Artola, Zapirain eta abar.

3.3. Zaldubi izan zen Zazpiak Bat leloa ezagutarazi eta ospetsu egin zuena, berak ez baldin bazuen sortu edo lehen aldiz erabili. Bi kantutan erabiltzen du: “Eskualdunak” eta “Gauden gu Eskualdun”.

“Eskualdunak” delakoan hau dio: “Zazpiak bat nahian / Bagaude aspaldi handian” (*Oeuvres du chanoine Adéma*, RIEV, III, 1909, VII Chants Patriotiques, 396-400). Adémak berak azken eskualdia emana bide zion honek 10 ahapaldi ditu, 12na bertsoleerrotakoak (10 A / 8 B / 10 A / 8 B / 7 B / 9 B / 9 A / 8 B / 9 A / 8 B / 10 A / 8 B). A. Bengoetxeak prestatu edizioan 1882kotzat jotzen du kantu hori baina iturririk aipatu gabe (*Gratien Adéma. Kantikak eta neurutzak*, EEE, 1991). Kantore hau Donibaneko Euskal Jaiak (1892) kari ondua zela diosku egileak. Hurrengo urtean Azpeitiko Jaietan aurkeztu zuen.

RIEVeke azken testua baino aurreragoko aldaera bat *Eskualduna* kazetan agertarazi zuen egileak: “Eskualdunen sort-herriko kantua”-Chant Patriotique Basque. Composé à l’occasion des fêtes internationales basques de St-Jean de Luz (Août 1892). Paroles de G. A. Zalduby. Air Labourdin ancien” (*Eskualduna*, 293, 1893-I-6). Aldaera hau laburxeagoa da, ahapaldi –bi gutxiago– nahiz bertsoleerroei dagokienez. Hala ere, RIEVeke dateke azken aldaera. Gaia (euskaldunen etorkia, lehena eta oraina) oso eta garbiago garatzen du, foruen galera Frantzia eta Espainiaren patu hausteari egotziz espresuki. Bertsoak ere hobeki eta gozoago moldatzen ditu eta hizkuntza aldetik garbiagoa da.

Kantu honetan Zaldubik euskaldunen lehena eta oraina lotzen ditu, jendakia, hizkuntza eta erlijioa ardaztat, eta, zehatzago euskara fede katolikoaren jagoletzat hartuz. Hortaz, Zaldubirentzat Zazpiak Baten nahia eta beregaintasuna lotua dago ere etnizismoari eta Frantziako Errepublika “gorri”, funtzionario eta arrotzen aurkako politikagintzari: “Guri manatzeko ez da gai / Jainko gabeko puxantik, / Ez sinheste, ez odol, ez mintzai / Ez dutenak deus guretik. / Aixkide ditugun ala etsai / Ahal dakigu engoitik” (azken ahap.).

Bestenaz, euskaldunen mitologia tradizionalerako ezpalez baliatzen da: etorkia (“Ekhialdeko jendaia zaharren / Ginela lehen askazi”), bidaia eta urruneko leihorretaratzeak, gudukari ospea, Jainkobatartasun eta giristinotzea, mairuekiko gerla, Espainia eta Frantziarekiko patu eta patu-hausteak. Baina, gainera, euskaldunentzat sinbolo diren pertsonaiak ere aintzat hartzen ditu: sailduak, gerlariak, euskal idazle eta irakasleak (“Bonaparte, Dibasin, Abadi, / Intxauspe, lau jakintsunak”).

Hona hemen, erakusburutzat, ondoko ahapaldia, bi aldaerekin, grafia errespetatuz:

ESKUALDUNAK

(*Eskualduna*, 293, 1893-I-6).

(RIEV, 1909)

6. Laphurdi, Bachenabar, Chubero,
Hirur bagare Frantzian;
Bizkai, Gipuzco, Alaba, Nabarro
Lau badire Espainian.
Zazpiak bat nahian
Ginauden aspaldi handian.
Oi! zein liteken ederrago,
Baldin Eskualdun herrian,
Eskualduna librorik balago
Bere zuzenen erdian!

8. Lapurdi, Nabarpe 'ta Zibero,
Eskualherriak Frantzian;
Bizkai, Gipuzco, Alaba, Nabarro,
Berdin dire Espainian.
Zazpiak bat nahian
Bagaude aspaldi handian.
Zazpiak bat dute izan gogo
Elgarren oneretsian.
Oi! zein litekeien ederrago
Baldin, Eskualdun herrian,
Eskualduna bere gain balago
Bere zuzenen erdian.

Bigarren kantuak, “Gauden gu Eskualdun” ospetsuak, aldaera bat baino gehiago ditu. 1893koak hamabi ahapaldi ditu (“Gauden Eskualdun”, *Eskualduna* 332, 1893-X-6). Azpeitiko Jaietan 1893an aurkeztutakoak, hamalau (Azpeitia, 1893, “Gauden eskualdun. Laphurtar kantu berriak, gipuzkoar eta bizkaitarrek Gernikako arbolarenak dituzten gisa berekoak” (*Anton Abbadiaren Koplarien Guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897, 1997*. lk. 376, 388. or.). Aldaera bera dakar Ch. Bernadouren liburuak ere, musika eta guzti (*Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893. Suivi de la Marche de saint Ignace et autres poésies basques avec musique*. Bayonne, Lasserre, 1894). Bosgarren ahapaldian zazpietarik bat, Araba, ukoan jarriko ote den beldur da Zaldubi:

5. Eskualherri guzian
Alaba baxharra,
Ukhoan jarri zaikun,
Da gure ikhara.
Fueoak galdu eta
Utzi du Eskuara,
Akhabo Eskualduna,
Hortaraten bada.

Bada beste aldaera bat, 1894koa, aipatu azken bien eta RIEVekoaren biderdian dagoe-na. Hamabost ahapaldi ditu, RIEV-ekoak bezala, eta frantsesezko itzulpena dakar (“Gauden gu Eskualdun. Eskualdun besta eta biltzarretako kanta”, *Eskualduna* 378, 1894-VIII-24 Suppl.).

Azkenik, RIEVeko aldaerak (RIEV III, 1909, 396-399) aurrekoek zekartzaten bi ahapaldi kentzen ditu, horietako bat Arabari buruzkoa, eta ordeztu beste bi berriak ezarri:

GAUDEN GU ESKUALDUN (Eskualdun besta eta biltzarretako kanta)

Errepika
Zazpi Eskualherriek
bat egin dezagun
Guziak bethi, bethi,
gauden gu Eskualdun.

1. Agur eta ohore
Eskualherriari:
Lapurdi, Basa-Nabar,
Zibero gainari;
Bizkai, Nabar, Gipuzko,
eta Alabari.
Zazpiak bat besarka
lot beitez elgarri.

2. Haritz eder bat bada
gure mendietan,
Zazpi adarrez dena
zabaltzen airetan,
Frantzian, Espainian,
bi alderdian:
Hemen hiru ´ta han lau,
bat da zazpietan.

“Gauden eskualdun” herri-kantu ezaguna bihurtu da. Egileak euskaldunen biltzarretako kantu bihurtu nahi zuen, Gernikako Arbolaren ondoan kantatzekoa. Izatez, haren irudira egina da¹⁶. Haritzaren zazpi adarretan euskal herriaren batasuna ikusten zuten, dudarik gabe, euskaldun askok, bai eta euskaldun irauteko gogoia, izenburuak jasotzen duenez.

Zaldubik Euskal Herria behera jautsia ikusten du eta horregatik “Gauden eskualdun” “odolez eta fedez / bethi berdin garbi, / Bethi tink’atxikia / hire Eskuarari” (13. ahap.). Hortakotz du euskaldunen berezitasuna azpimarratzen, gero eta nabarmenago, arrotzen nausitasunaren beldur delako (bost aldiz errepikatzen du “arrotz” hitza). Honen erakusgarri dira RIEV-eko edizioan agertzen diren bi ahapaldi berriak:

“Funditua uholdez, / zirimolez, ortziz; / Aizkorari arrotzek / adargoiak hautsiz; / Harrek ere ixilka / barnetik iretsiz;.../ Haritz maitea, min duk / aphaltzea gaitziz.” (4. ahap.). Eta: “Gu gare, Eskualdunak, / berexiak beraz / Gure ethorkiz eta / mintzaira eskuaraz. / Nihongo arrotzekin / ez dadien nahas, / Arrotzek gur’eskuara / ez dirote ikhas.” (8. ahap.).

Arrotzei dagokienez, ohargarri da “Eskualdunak” kantua 1892ko aldaeran ondoko zatitxoa kendu zuela Zaldubik bere azken eskualdian edo behintzat RIEVeko edizioan: “Dugun ohora arrotz delarik / Eskuara maite duena”. Eta “Gauden gu eskualdun” kantuan, ordez, arestian aipatu ahapaldi berria (8.a) ezarri. Arrotzen nagusitasunaren beldurra –edo, bestela esan, euskalduna bere gain jartzea, eta, funtsean etnizismoa– gai nagusietarik bat da XIX. m. bukaeratik hasita Iparraldeko euskal idazle kontserbadoreen ideologian: Gr. Adéma

16. 1897an Zaldubik Gernikako Arbolaren omenez egina zuen poema erdi idiliko-erdi heroikoaren berri ematen du (*Eskualduna*, 531, 1897).

bera, 1894ko “Eskualdunak” en egileak, Moulier, Barbier etab., aipatu egile hauek jatorriz arrotz zirelarik bizkitartean.

Zaldubik biziki maite zuen Euskal Herria eta, erreka behera zoala ikusten zuen arren –garaiko euskal idazle “xuriek” bezala– fede handia omen zuen etorkizunean, J. Etxeparek dioskunez¹⁷.

3.4. “Ama Euskarari. Zazpiak Beti Bat” (“presentatua lurretara 1891”). Soneto akrostikoa, bertsolero bakoitzeko hasierako letrek goitik behera “Zazpiak Beti Bat” baitiote. (aip. *Anton Abbadiaren koplarien guduak* (359. or.).

Zazpiak Bat goiburua nabarmenki darabilen lehen olerki ezaguna da, ustez eta orain arte behintzat. Ez zen izan saritua. Gipuzkeraz egina da eta egilea Casal Otegi bide da, P. Urkizu esan didanez. Ama euskararen amodioan finkatzen du zazpien anaitasuna.

AMA EUSKARARI (akrostikoa). ZAZPIAK BETI BAT

Zuben anayak izango gera bizi artian
 Adierazten dizutet gogoz biyotzetikan
 Zazpiak bada lotsaz ez gaiten geldi atzian
 Pozik alegiñ egin dezagun aman gatikan.
 Izan liteke negar egiñaz gure gatikan
 Arkitutzia buru makurka baztar batian
 Korri mutillak, jarri gaitian danen gatikan
 Barkaziyua eskatutzeko bere aurrian.
 Euskaldun danak ama euskara maita dezagun
 Ta biyotzetik Jaungoikoari beti eskatu
 Idukitzeko bere onduan gau eta egun.
 Bere barrunen gaitzik beñere ez dedin sartu,
 Ama betiko izango gera zurekin lagun
 Ta guregatik irudipenik ez iñoiz artu.

3.5. “Eskualdunak” kantua, ‘Bi Eskualdun’ sinatua (*Euskal-Erria*, 1894, 190. or., “Euskal festak Donibanen”; Ch. Bernadou, *Zazpiak Bat*, 124-129). 1894ko Donibane Lohitzuneko Euskal Festetan garait-saria irabazi zuen. Azken bi ahapaldiak ezarriko ditugu.

ESKUALDUNAK

“Españan Nabar, Biskai, Alaba, Gipuzko,
 Frantzian Baxenabar, Laphurdi, Zubero,
 Zazpi herri hauk dire Eskualdunen toki:
 Ez dezake parerik iguzkiak argi. (15. ahap.).

Biba beraz goraki, biba zazpiak bat!
 Iduri dute kasik zeruko xoko bat.
 Zazpietako seme, Eskualdunak oro,
 Gauden elgar maitatuz orai eta gero” (16. ahap.).

17. “Zer nahi bazakien Eskual-herriaz, Eskual-herriko ohitzez, sinesteez, jaidurez, Eskual-herriko xokoetan aditzen diren hizkuntza bereziez. Ez dut uste nehorik maitatu duen Eskual-herria bihotz kartuago batekin eta ukan fede gehiago gure etorkizunean.” (“Zaldubi Aldudan”, *Buruxkak*, EEE, 1992, 121).

3.6. D'lbarrart-en bi kantutan ere aipatua da Zazpiak Bat. "Eskualdunak" delako kantuan: "Mendien bi aldetan, zazpi probintzia, / Zazpiak bat zirela ez da ahantzia... / Zer bihotz-min anaien hola berextea, / Eta librotasuna ondikotz galtzea!" (11. ah.). Eta: "Haurrak, ikas-azue eskuaraz mintzatzen, / Ikas pilotan eta oneski dantzatzen; / Bai eta fedearen azkar atxikitzen: / Arbasoen iduri oro izan gaiten!" (12. ah.).

Baita "Euskal Herria eta eskuara" izenekoan ere: "Zazpi probentzietarik hiru ditu Frantziak, / Hetan dira hedatuak Eskual-herri guziak. / Iduri zeru-zolako izar begi argiak; / Eliza bana erdian daude xuri-xuriak" (2. ahap.; ik. *Eskualduna*, 810, 1902-12-26; *Euskal-Erria*, 1902, II, 572-3).

3.7. Otxaldek Zazpiak Baten aipurik ez du egiten (?), beharbada, baina bai zazpi eskualdeena. Adibidez "Khantu berriak" delakoan: "Aiphu emaiten diot Eskual-Herriari, / Baxe-Nabarren hasiz Xubero gainari, / Lapurdi, Probentzia, eta Nafarriori, / Gipuzko, Alaba, Bizkai ederrari" (V. ahapaldia). Edo: "Ez dira Frantziako, lur oien erdiak, / Zatituak baitira, bortzietarik biak, / Lur gizenak ditugu, aberats mendiak / Hautan egiten dira arkuntza andiak" (VI. ahap.). Kantu hau *Euskal-Erria*, 1895, II, 530-531n argitaratua dago, aldaera askorekin eta egile gabe, baina Otxalderenaren plagiola da.

3.8. "Arbasoek bazuten..." hasieradun kantua (*Bertsolaritzaren historia*, Etor, 1991, T. I, Anonimoak, Euskal Herriaren alde).

Zer zen bada zaharren bizitze manera?
 "Sor-lekhuan egon, ez handik atera".
 Bihotz osoz bil gaiten Zazpiak batera
 Bethi hemen dagoen Eskualdun bandera. (IX. ah.).
 Garbi iduk dezagun nor gure etxola,
 Arbasoek lehenik iduki bezala.
 Zazpi Probintzietan landatuz arbola,
 Geriza ginezake Eskualdun odola!" (XI. ah., azkena).

3.9. Arrese Beitiarentzat motibo garrantzitsua da Zazpiak Bat, franko aldiriz aipatzen baitu. Haren olerkiak biltzen *dituen Felipe Arrese ta Beitia. Olerkiak* liburutik aterako ditugu adibideak (Euskal Idazleak, Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1956, A. Onaindiaren hitzaur.). Arrese Beitiarentzat ere euskaran oinarritzen da zazpien batasuna.

"Jaungoikoa eta Foruak" olerkian (1896): "O! Esperantza gure zarean / Aretx samur ta laztana! / Orra or datoz Bizkaia legez / Gipuzkoa ta Araba; / Orra or dator oneen antzera / Bai Nafarroa azkarra, / Baita Frantzian beste anaiak / Diñoen elduko dirala, / Zazpirok egin daigun Erri bat / Deritxakona *Euskara*" (23. ah., aip. lib., 77-78).

"Euskaldunak gara" olerkian azken hiru ahapaldietan: "Bizkaia, Gipuzkoa ta gure Araba, / Eta Naparroagaz lau anaia gara; / Beste aldeko irugaz batzen gareala, / Zazpirok bear dogu gaur salbau *Euskara*" (11. ahap.). "Zazpirok bear dogu egin batasuna, / Zazpi Euskaldunerrik anaiatasuna; / Egin ezkerro zintzo guk alkartasuna, / Ziur, ziur, letorke euskalduntasuna" (12. ahap.). "Baturik biztu daigun guk geure Erria, / Askok izan deusana oni inbidia; / Betozen lango oiturak, ta lege garbia, / Ta geure lege zarren aginte aldia." (13. ahap., azkena. Ik. aip. lib., 81-82).

"Astarlo asko jakiñari" olerkian ere (saritua Durangon 1886an) zazpien ahaidetasuna aldarrikatzen du: "Erdue, bada, gipuzkoatar, / Menditar maite maiteak, / Erdue, Araba zelaie-tako / Euskera zale-zaliak; / Pirineo ta Ebro artetik / Erdue, napar anaiak; / Erdue bere Bidasoatik, / Beste aldeko aidiak; / Zuek eta guk garealako / Aita Tubalen semiak" (5. ahap.). (Ik. aip. lib., 200-205. or.).

Orobat “Kurutzearen bedeinkaziñoko egunean” delakoan: “Araba ta Bizkaia, Lauburu Santua, / Besapean artuizuz, zaindu Gipuzkoa, / Emengo Naparroa ta goixaldekoa, / Lapurdi eta bardin baita Zuberoa, / Zazpi seme galantok euren gurasua / Dabelako Euskera, Adanek sortua” (28. ah.). “Bai, Euskera da ustez urte geienduna, / Beragandik dogu ziur guk semeta-suna, / Berai bear deutzagu izan maitasuna, / Fedez, berbaz, ekanduz, legez, al doguna / Einda, urrinduteko erdalduntasuna, / Gozau daian Euskerak lengo osasuna.” (29. ahap.). (Ik. aip. lib., 374-380. or.).

Arrese Beitiaren bertsoetan jazargoan dauden bikote semantikoen eta sinboloen azterketa interesgarri bat bada, A. Zelaietarena (“Felipe Arrese Beitiaren foruzaletasuna”, *Foruak eta euskal literatura* liburuan, Kriselu, 1978).

3.10. Felipe Casal Otegik bere “Ama Euskara eta bere umiak” olerkian (1893. Azpeitia. Bigarren saria) hau dio:

Amak: Elkhartasun onean
Zazpi Probintziyak,
Urta bear ditugu

Oyen txarkeriyak (Ch. Bernadou. *Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893*. Bayonne, Lasserre, 1894. Ik. ere *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, 375, 387. or.).

Zazpiak Bat goiburuak indar berezia izan zukeen Amerika Behereko atzerrian, hizkera eta pentsamendu desberdinetako euskaldunak elkarrekin bizi ziren toki eta bilkuretan. Atzerrian agian errazago zen lelo hori hedatzea, interes material hutsengatik besterik ez bazen ere.

3.11. Jose Mendiague hazpandarrak Uruguaytik igorri kantuak liburu batean argitara ziren Buenos Airesen, beste batzuenekin batera, *Zazpiak Bat, Eskualdun kantuak* izenburuarekin (1900), *Haitza* astekariaren gerizapean. Mendiaguerean kantu horiek eta, geroago, 1913 arte, ondu zituenak hango eta hemengo zenbait kazeta gorri eta xuritan argitaratuak izan ziren (Baionako *Eskual-Herria*, *Eskualdun Ona* eta *Eskualduna*, Montevideoko *Eskual-Herria*), eta berriki P. Xarritonek bildu dizkigu (*Jose Mendiague (1845-1937). Haren bizia eta haren kantuak*, Etor, 1992).

Mendiague ez zen apaiztiarra, “gorria” baizik, eta hemen ezezaguna bezain ospetsua Ameriketean. Hona hemen Mendiaguerean kantu esanguratsuenetik, eta P. Xarritonen ediziotik jasota, hiru ahapaldi:

EUSKUALDUN GUZIAK BAT

I. Lapurdi eta Baxenabarre, Xuberoa eta Nabarra,
Gipuzkoa eta *Bizkaia*, zazpigarrena *Araba*,
Guziek elgar atxik dezagun, neholere ahal bada,
Aiten kostumak segi ditzagun, galdu ez dezagun Ama.

II. Zazpiek elgar atxik dezagun, denek eskuak emanik,
Hiru Frantzian, lau Espainian, aparte izanagatik,
Lehenagoko arrenurak utz, elgar maita bihotzetik,
Euskal Herriak anaiak dira, mundurat sortuz geroztik.

XVIII. Ez deia bada dolueingarri, holako arraza galtzia?
Lehen, gureak ziraden lurak, bertzen eskutan uztea?
Bakoitza bere lurren nagusi jartzen ari da jendia,
Ez dugu behar galdu esperantza, jin daite gure aldia.

P. Xarritonek ohartarazi didanez, XVIII. ahpaldiko azken bi bertso-lerroetan badirudi Mendiaguen garai hartan besteren mendeko herriek aldarrikatzen zuten autodeterminazioa nahi duela gure herriarentzat ere.

Beste kantu batzuetan (“Denak Bat”, “Gure Haitza” etab.) euskaldunen arteko anaitasuna eta bakea –Gernikako Arbolaren itzalpean–, amodioa, “Denak batera” biltzearen beharra –batzuetan elkarri ihesi ikusten baitzituen–, elkartasuna eta odolaren iraupena aldarrikatzen du: “Bihotzez noble, burua gora, gauden len bezala egun, / Anaiak garen bezala, elgar beti maite izan dezagun; / Gure arraza baino hobirik ez baita munduan nehun, / Libro edo esklabo, bizi edo hil, beti izan gaiten Eskualdun” (“Gure Haitza”, VI. ahap., aip. ediz., 57. or.).

Elkartasuna, bereziki euskararen etsaien kontra (“Montevideo-ko “Euskal Herria”ren komisioneari”). Garbiki mintzo baita beti hazpandar bertsolari indartsua: “Sekulan ez da nehoren xerka ibili gure arraza, / Halarik ere kontrarioak gure inguruan dabilta, / Bi aldetarik biga baitugu, Espainola eta Frantsesa, / Egin ahalak eiten dituzte, ez gaiten euskaraz mintza, / Amaizuna nahi daukute eman, Amari kenduz bizitza.” (“Biba gure arbasoak”, aip. ediz., 165. or.)

3.12. Otañoren *Artzai-mutilla* operaz ari dela, hauxe diotso Mendiaguen: “Orain artean ez da agertu holako obra ederrik, / Ameriketara, zu izan zire, egin duzuna, lehenik; / Zure fama ez da zabaltzen “Laurak Bat”-ean bakarrik, / Laudorioak hartu dituzu Zazpi Probintzietarik!” (“Jose Mendiaguen P. M. Otañori, Xarritonen ediz., 83-84. or., V. ahap.).

Eta Pello Mari Otañok erantzuten dio “Zazpiak Bat” kantu ospetsuarekin, “Ume eder bat...” airearekin kantatzekoa, hazpandarrak bere liburuan jaso zuena. Otañoren olerkia “On Jose Mendiague jaunari donkitua” eta Pehuajón 1900an sinatua da. *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zuen (1900, I, 472) eta bere kantuliburuan (*Alkar*, 1904).

ZAZPIAK BAT (1900)

1. Zazpi aizparen gai dan oiala
 ebakirikan erditik,
 alde batera “iru” soñeko
 utzirikan, “lau” bestetik
 goraiziakin berezi arren
 bakoitza bere aldetik,
 ezagutzen da jantzi dirala
 zazpiak oial batetik.

2. Oialtzat artu zagun Euskera,
 goraizitzat Bidasoa,
 ibai koxkor bat besterik ez da,
 utsa balitz itxasoa:
 elkarren urbil daude Zazpiak,
 muga deitzen da “Pausoa”.
 Zergatik izan bear ez degu
 famili bakar osoa?

3. Arbola baten zañetatikan
 sortzen diran landariak
 bezela gera, Bidasoa'ren
 bi aldetako jendiak:
 berdiñak dira gure jatorri,

oiturak eta legiak,
Ama Euskerak magal berian
azitako senidiak.

4. Ama Euskera! Bere semiak
gu Ameriketan zenbat
arkitzen geran! ta urrutitik
maitiago degu anbat:
emen ez dago Bidasoarik
ta beste trabik an ainbat;
Ama maitia indartu dedin,
bizi bedi “ZAZPIAK BAT”.

“Batasuná” izeneko kantuan ere hau dio Otañok: “Elkarganatu ditu odolak / Ta denak bat izan nayak”.

3.13. Azkenik, 1903-1904ko Euskal Jaietako gipuzkoar bertsogile zenbait aipatuko dugu, bereziki Jose Artola.

Jose Artola Elizetxeak (1864-): “Euskarari” olerkian (*Euskal-Erria*, 1896 II, 106. or.): “Anai maitiak dira / bai, zazpi probintzi, / mendi tartean oso / paketsuak bizi, / euskara, itz maitia / dutela nagusi, / lege ederra dute / beti erakutsi” (3. ah.).

“Euskal-Erria” olerkian (*Euskal-Erria*, 1900, II, 101. or.). “Zazpi seme benetakuak, / odolekuak, / gera anai. / Auñamendi ingurukuak, / jaiotakuak, / gabiltz ernai, / euskaltzale biyotze-kuak, / maitatuak / ere bai, / ausardiz azaldutzen gera non nai” (5. ahap.).

Pepe Artolak “Zazpiak bat” izenburudun bertsoak ondu zituen: 1903an, “Donapaleoko eskual bestetan bertsularien guduan irurgarren garait-saria ereman duen kantua”). *Euskal-Erria* (1903?) eta *La Baskonia* (XIII, 1906) aldizkarietan ere argitara ziren.

ZAZPIAK BAT

I. Kabi polita leku onian
arkitutzen dan moduan
ala berian azaldutzen da
euskal-erria munduan;
zazpi umetxo egatzen diran
bezela bere onduan,
pipirripiak egiñaz pozez
beren izkera gozuan,
modu berian zazpi senide
gabiltz pozkida osuan.

II. Zazpi anayak biyotzetikan
maitatu bearrak gera,
azaldutzeko lengo fuero ta
oitura onak aurrera;
¡gure izkuntzik ez da galduko
gu saiatutzen bagera!
baizik gero ta indar obean
argituko da euskera,
doatsunezko eta gozozko
pare gabeko izkera.

III. Gu lau senide Españatarrak
gera beti euskarakiñ
Frantziatarrak zubek irurak
beti zerate gurekiñ;
bide zuzen ta jatorrezkoai
bear diyogu, bai ekiñ,
kopet argiya musu alaya
degula beti gurekiñ,
Mundua mundu dan bitartian
izan gaite elkarrekiñ!

IV. Gure izkuntzak ez du mugarik
magal bat degu guziyak,
lur ontakuak *denak bat* gera
naiz Españi nai Frantziyak;
Ama euskerak dianak gaitu
begi onez ikusiyak,
bere bular ta zumo gozoak
beti dauzka ir(i)kiyak,
ase ditzagun maitasunezko
gure biyotz egarriyak.

V. Euskal erriko kabi ontatik
irten dira *Ama-gana*
seme jakintsu oso pizkorrak
laguntzera beragana;
beti argitan izango dira
oyek egindako lana,
nork ez dakizki beren izenak?
Bilintx, Manterola, Abbadie
ta Duvoisin kapitania?

VI. Gu ere lengo zarrak bezela
gizonak izan gaitian,
zazpi probintzi euskaldun onak
elkarturikan batian;
fueoak eta euskal izkera
degula borondatian,
gure biyotzak Jainkuagana
jarririk fedez betian,
itsaso, mendi, zelai ta lurak
munduan diran artian”.

1904ko “Frantziatar eta Españatar euskaldun anayai Diosala” olerkian ere zazpien senidetasuna kantatzen du P. Artolak: “Gaur Donostiya pozez betia / apaindua da aurkitzen, / euskal erriko anaide ona / onera dalako biltzen, / Ongi etorri esanaz dira, / zazpi senide batutzen, / biyotzetikan ditugu denak / bere benetan agurtzen” (1. ahap.). “Euskaldun aur gaztiak / elkartu gaitezen / oitura ta legiak / galdu ez ditezen, ...” (2. ahap.).

3.14. Jose ZapiRAIN Irastortzaren “Euskal-Erria-ri” olerkian zazpien elkartasun nahia agertzen da behin eta berriz (*Euskal-Erria*, 1903, II, 505): “Zazpiyak esku emanta bizi obedegu” (2. ahap.). “Non nai beti gorafio agertu egiyak / Ala zabaltzen dira Euskaraen berriyak, /

Itzketan ez algera guztियok anayak? / Ta ¿nola ez maitatu zazpi probintziyak? / Oberikan ezpaitu, ez, mundu guziyak.” (3. ahap.). “Aravar ta nafarrak, Gipuzkoa ta Bizkayak / Bizi legian daude ederki jarriyak, / Beste iru probintzi or dauzka Frantziyak / Euskaraz minzatu-tzen dira egokiyak, / Agurtutzen ditut gaur emendik zazpiyak” (4. ahap.).

3.15. Urte berean (1903) Elizetxearen “Euskal-frantzesai agurra” kantuak (*Euskal-Erria*, 1903, II, 324-5) Zazpiak Bat aipatzen ez duen arren, bai, ordea, anaitasuna odol, hizkuntz, oituretan. Mugarik ez da sentitzen Bidasoan (Pausuan): “Odol batek errayak / dizkigu busti-tzen / itzkuntz batian denak / gerade mintzatzen, / oitura garbi berak / ditugu gordetzen / ¿beraz, nere anayak / ditut nik agurtzen...!” (3. ah.). Akzesita irabazi zuen Irunen.

Bertso hauek guziek, beste eskualdeetako euskaldunak euskal besta eta antzeko bilku-retan agurtzeko eginak, euskaldunen arteko anaitasuna eta euskara goraiatzen dute.

4.1. “Zazpiak Bat” Euskal Festetako literaturan kokatzen.

Zazpiak Bat gaia eta goiburua literaturan Pizkunde garaian agertzen dira, 1882 ingurutik aurrera edo, Elizondoko Euskal Jaien ondotik (1879). Hor Arrese Beitiaren “Ama Euskeriari azken agurrak” kantuarekin euskararen gaia –kontzientzia politikoaz– sartu zen eta aldi bere-an euskaldunen inguruko gaiak erabiltzen hasi ziren: adibidez, Altabizkarko gudua (1879, 1880), euskaldunen batasuna (gaitzat jarria Irungo Lore Jokoetan, 1881); hauen anaitasun eta Laurak Bat (Iparragirre, K. Otaegi...), sorlekuaren amodioa, Euskal Herria(k), arbasoak, Gernikako Arbola (gai hau antzinagokoa da)... Zazpiak Batek lotura estua osatzen du horiek guztiekin eta beste batzuekin, baina korapilatzeke era ez da beti bat.

Gaiak indarra hartzen du 1892-1904 bitartean euskal kantu eta bertsoetan. Hori darabil-ten poeta edota bertsogile aipagarrienak Zaldubi, Arrese Beitia, Otaño, Mendiage eta J. Artola dira. Euskal Jaietako kantu eta bertsoetan agertzen da, gizarte eta politika agerpenetan baino indartsuago agian.

Gaia eta goiburua poesia mota hori agertarazten duten garaiko euskal aldizkari eta kazeten bidez ezagutarazten da: *Euskal-Erria* (1880-1918), *Revista Euskara* (1878-1883), *La Baskonia*. *Revista ilustrada eusko-americana de Historia, Literatura y Arte* (1893-1907), Baionako Eskualduna kazeta etab... Baita gaia edo goiburua aipatzen duten zenbait liburu-ren bidez (Bernadou baiones kaskoin euskalzale eta Herriko Etxeko kontseilari izan zenaren aipatu bi liburuak, adibidez).

Eskua handia izan zuen, bereziki, *Euskal-Erria* aldizkariak: “Revista Bascongada, Organo del Consistorio de Juegos Florales, de la Asociación Euskara de Navarra, del Folklore Basco-Nabarro, de la Sociedad de Amigos del Pais”. Aldizkari honetan Zazpiak Bat ia sail bihurtzen da, eta epigrafe honen pean artikulu batzuk idazten dira, adib. Vicente Monzonenak (*Euskal-Erria* 1894, 295-298, 340-343, 475-480). Aldizkariak literatur sariketak antolatatu zituen. Zuzendaria, A. Arzak, Lore Jokoetako idazkari izan ohi zen.

Zazpiak Bat gaia garrantzitsua zela erakusten dute poema edo kantu batzuen izenburu edo bukaerek, baita kantuliburuaren izenburu zenbaitek. Esaterako, Mendiaguerean *Zazpiak Bat*. *Eskualdun kantuak* (Buenos Aires, 1900). Antzeko izenburua du P. M. Otañoen *Alkar*-ek ere (*La Baskonia*, Donostia, 1904).

Beraz Zazpiak Bat euskaldunen Lore Jokoek sortutako gai eta goiburua da. Besta eta bilkuretan beste eskualdeetako euskaldunak agurtzean erabili zen anaitasunaren goresgarri eta elkartasunaren adierazgarri (ik. J. Zapirain-en “Euskal-Erria”, 1903). Lore Jokoak desa-gertzean errito edo ohitura hori ere itzaliko da zerbait.

Zazpiak Bat 1891ko lurretako euskal jaietara aurkeztu zen “Ama Euskarari” soneto akrostikoarekin. 1892 eta 1894ko Donibane Lohitzuneko Euskal Festetan jo zuen gailurra eta hor eskua handia izan zuen Zaldubik, 1892an Donibanen eta 1893an Azpeitian goiburua ezagutarazi baitzuen. 1894koetan “Euskal-Erria, bere oitura, usantza eta libertade zarrak” ezarri zen gaitzat, Zaldubi epaimahaiko zelarik. Garait-saria irabazitako olerkiak azken ahapaldian “biba Zazpiak bat!” oihukatzen zuen. 1900 inguruan bigarren gailurra igotzen du Zazpiak Bat leloak, atzerrian (Mendiague, Otaño). Eta 1903-1904ko Jokoetan hirugarren bat.

Euskal herri osoan agertzen da Zazpiak Bat, bereziki sentiberatasun handiagoko toki eta poetengan: muga inguruko lapurtar eta gipuzkoarrak, atzerrikoak, edota gaiak bereziki ukitzen dituenak.

Azkenik, poeta hauen artean harremanak daude, bai Lore Jokoen bidez, bai atzerrian (adib. Otaño eta Mendiagueren artean). Eragile batzuk daude (Iparragirre, Elizanburu, Zaldubi...). Kantuetan antzeko ideiak edo topikoak eta orobat irudiak agertzen dira, ikusiko dugunez.

4.2. Ideologia, adierazia eta adierazlea (irudiak).

4.2.1. Zazpiak Bat gaia aztertzean oso kontutan hartzekoa da idazleen ideologia, haiek kantuetan ixurtzen dutena (nahiz eta lotura etnikoak ukatzerik ez dagoen).

Beraz, alde batetik euskal ideologia kontserbadoreak eragindako Iparraldeko idazleak ditugu (Zaldubi, D’Ibarrart, 1894ko “Eskualdunak”en egileak, gero Oxobi etab.). Hauentzat eskaldunak bereziak dira hizkuntzaz, odolez eta sinesteaz. Hortaz, euskara eta erlijioa elkarrengandik bereizi ezinekoak; areago, hizkuntza erlijioaren euskarritzat daukate. Bestalde, eskaldunak bere etxean, erran nahi baita Euskal Herrian, nagusi izatea –eta ez arrotzak– nahi dute. Ohargarri da Iparraldeko eskaldun “gorriek” (Elizanburu, Otxalde etab.) ez darabiltela (ia) Zazpiak Bat leloa.

Beste alde batetik, bigarren multzo txikiago batean, atzerrira joan behar izan dutenak eta eskaldunen anaitasuna goستن eta elkartasuna oroz gain nahi dutenak daude (Mendiague, Otaño...).

Hirugarren multzoan Hegoaldeko poeta eta bertsogileak jar genitzake, Zazpiak Bat euskara eta foruekin lotzen dutenak (Arrese Beitia, J. Artola), eta batzuetan erlijioarekin.

4.2.2. Zer adierazten du gai eta goiburu honek? Zazpiak bat izan nahia (“Eskualdunak”, Donibane Lohitzun, 1894; Otaño, etab.).

Zazpi haurride edo senideek, edo anaiak, edo, Oxobik nahi zuenez, ahizpek probintzien arteko anaitasuna edo haurridetasunaren ezagutza adierazten dute.

Euskaldunen elkartasunaren nahia (lege zaharrak ekartzeko etab.) adierazten dute hainbat kantutako hainbat adierazpidek: adibidez Mendiagueren “Biba elgartasuna”, “Bihotzez elgar maita dezagun, bizi gaiten bakean!” etab.

Elkar maitatu beharra ere adierazten da beste kantu batzuetan (“Eskualdunak”, 1894; J. Artola, etab.).

4.2.3. Lehenago Zazpiak Bat zirela, gero bereizi zituztela (D’Ibarrart, Elizanburu). Hots, foruen kentzearekin edo erresumek eskaldunekin eginiko patuen haustearekin (Zaldubiren “Eskualdunak”).

Euskal Herria gainbehera jautsi dela erakusten duen ikuspegia orokorra da mende bukaeran, Iparraldean nahiz Hegoaldean. Hona hemen Zaldubiren alegoria: haritza mendian, zazpi adarrez zabaltzen dena airetan, bi aldetarik (Frantzia / Espainia). “Funditua uholdez, zirimolez, ortiz / aizkorari arrotzek adargoiak hautsiz / harrek ere ixilka baretik iretsiz;...”. Poetak berak azaltzen digu esannahia: “Hi haiz, Eskual-Herria, haritz hori bera, / arrotza nau-siturik moztua sobera / oi! gure arbasoak, ez, othoi, ez beira, / zein goratik garen gu jautsiak behera”.

Zaldubik poema hau ondu baino urte batzuk lehenago Elizanburuk mendi gainean arrokari jarria den arbolaren irudia erabili zuen, euskal jendaki edo arraza azkarraren adierazle gisa eta hura goretsiz (“Eskalduna” kantua, 1867, Sara, ik. A. *Abbadiaren koplarien guduak*, 203, 228. or.). Euskaldun Arbolak erroak sendo ditu inguruko etsaien aurka borrokatu ondoren ere (“Haizkorez harmatuak denak lotzen zaizkit”). Gero Zaldubik antzeko irudiak erabiliko ditu, nahiz ez hain tonu alegarri.

Otañoren bertsoetan Euskal Arbolaren landareek bi aldeetako euskal jendeak irudikatzen dituzte. Honatx Otañoren simila: “Arbola baten zañetatikan / sortzen diran landareak / bezela gera, Bidasoaren / bi aldetako jenteak”.

“Arbasoek bazuten” kantuan (anonimoa) arbola landatzearen irudiak euskal jendakiaren iraupen nahia adierazten duke: “Zazpi probintzietan landatuz arbola, / Geriza genezake eskualdun odola”. Nahi hori adierazten du ere “Gauden eskualdun” eta hainbat kantuk.

Beraz euskaldunak bi estatutan bereizita daudela, lehenago ez bezala. Bidasoa ibaia (euskaldunak bereizteko asmoz ezarritako mugaren irudia) alegiazko muga eta egiazko lokarria izan da (Otaño, Elizetxea), bi aldeetan euskara mintzatu izan delako (Mendiague) edo euskaldunen bihotza zatitu ez duelako (Oxobi).

4.2.4. Euskarak egiten dituela zazpi anaiak, ahizpak edo haurrideak bat. Zazpiak Bat darabilten hegoaldeko eta atzerriko kantu gehientsuenetan euskara ezagutzen da zazpien arteko lotura nagusizat (Arrese Beitia, Otaño, Mendiague, J. Artola...). Era berean, “Ama Euskara” goiburu edo leloa Zazpiak Batekin batera agertzen da atzerriko eta hegoaldeko gehientsuenetan.

Otañok darabilen alegoria, hots, zazpi ahizpa oihal beretik jantziak, honela azaltzen digu berak: “Oialtzat artu zagan Euskera, guraiztat Bidasoa, zergatik izan behar ez degu famili bakar osoa?”.

Zazpiak Ama Euskararen edo Euskara Amaren (*Euskal-Erria*, 1891) semeak dira, edo “Ama Euskeraren senideak” (Otaño). “Gure izkuntzak ez du mugarik / magal bat degu guziyak / Ama euskerak dianak gaitu / begi onez ikusiyak, / bere bular ta zumo gozoak / beti dauzka irikiyak” (J. Artola). “Euskaldun danak ama euskara maita dezagun” (“Ama Euskarari (akrostikoa). Zazpiak beti bat”, 1891, lurreta).

Ama Euskararen pertsonifikazioa, haren erostak –bere semeak galdu dituelako– edo madarikazioak –bera galarazi dutelako–, edo hilko ote den beldurra adierazteko esapide kliseturak darabiltzate batzuek eta besteek, Arrese Beitiaren bidetik. Adibidez Mendiaguek “Euskaldun guziak bat”, “Montevideo-ko “Euskal Erria”ren komisioneri”, “Haitza”ren moldatzaileari” kantuetan.

4.2.5. Iparraldeko euskal idazle kontserbadoreentzat euskarak, odolak, fede katolikoak, etorki eta historiak lotzen dute Zazpiak Bat eta aldi berean besteengandik bereizten. Idazle hauek beren kantuetan etsai politikoen kontra (“arrotz”, “kaskoin”, adib. “Escualdunac”, 1894) gudukatzen ari baitira, tonu noiz etsitu noiz jazarkorreen mintzo zaizkigu.

4.2.6. Hegoaldeko poeta eta bertsogile batzuetan Zazpiak Bat, Ama Euskara eta Jaungoikoa eta Foruak leloak elkarrekin agertzen dira (Arrese Beitia, J. Artola etab.).

Baita horiek “Euskaria” edo “Euskara”rekin batera. Adibidez, Arrese Beitiagan: “Zazpirok egin daigun Erri bat / deritxakona *Euskara*”). “Euskaria” hitzak berak garbi adierazten du euskararen garrantzia.

4.2.7. Ama Euskararekin bezala, baina guttiagotan, Zazpiak Bat batzuetan Aita Tubalekin lotuta agertzen da, haren semetzat ezagutzen baitute bere burua. Arrese Beitiak dio: “Zuek eta gu garealako / Aita Tubalen semiak”, aip. *Felipe Arrese ta Beitia. Olerkiak*, 201). Eta orobat D’Ibarrartek (“Eskualdunak”). Tubal aitzat hartzeak zazpiak etorki bereko jendakiak direla esan nahi du.

Aita Tubalek ez ezik, gainerako euskal mito eta sinbolo politiko-kultural tradizionalak (kantabrismoa, erromatarrengandiko beregaintasuna edo independentzia eta ituna, mono-teismoa etab.) gerizatzen dute Zazpiak Bat.

Baina Zazpiak Bat sinbolo politiko-kultural berriagoekin batera ere agertzen da: Lauburua, Gernikako Arbola... Baita euskal pertsona mitiko eta sinboliko berriagoekin ere lotzen: Aitor, Astarloa...(Arrese Beitia).

4.2.8. Gernikako Arbola edo Haritzarekin lotzen da maizkara Zazpiak Bat. Hots, libertate –agian ez guziz!– galdu(ar)ekin eta lege zaharrekin. Baita euskal odol edo jendakiarekin.

G. Berdeco “Baxenabartarra” delako abokat eta politikari xuriak, Donibaneko Jaiei antolaketa-zabalkundean parte hartu eta Zazpiak Bat goraki aldarrikatu zuenak, “Gernikako Arbolaren laudoriotan” kantuan (1891, lurreta) “Gernikako haitza gure bandera da” oihukatzen du (1. ahap.), iratzar eta gudukatza deituz: “Bizi da oraino Heskualdunen mota, / Loak badu bethi, ber’iratartzia! / Zorrozteko gure ezpaten burdina, / Badugu Rolanen hobiko horena!” (8. ahap. lk. A. *Abbadiaren koplarien guduak...*, 355).

Joera politiko bereko “Eskualdunak” kantua egileek (1894) zuzenak eta libertatea erabat ez galtzeko agiantza adierazten dute: “Españan Gernikako arbolaren pean, / Frantzian lehenago Haitzeko gainean, / Zer ikusgarri ziren Eskualdun biltzarrak! / Han guzientzat bardin xuxentzen makhurrak” (6. ahap.). “Eta horiek orai ametsak iduri.../ Gure zuzen guziak dauzkute ebatsi. / Oi! libertate saindu, izar goibeldua, / Agian ez zaitugu betikotz galdua!” (7. ahap.).

Orobat Mendiaguek: “Haitza da gure sorlekuetan libertatearen arbola, / Dener bihotza tristatzen zaiku, oroitz erori zela. / Hura lurrerat ez nahiz utzi, ixuri zuten odola, / Lurraren pean haren erroer indar emaiten ari da.” (“Gure Haitza”, 1. ahap., *Eskual-Herria*, 1913. lk. P. Xarritonen aip. lib., 57).

Mendiaguek Iparragirrenen eragin nabarmena du, noski, Xarritonek dienez (haren kantu zenbait ematen ditu bere liburuan eta espresuki aipatzen): “Kantatu izan dugu “Gernikako arbola” / Munduak ikus dezan bihotzian dugula; / Erro onekin landariak utzi zituela, / Sekulan gal ez dadin euskaldun odola” (3. ahap.). Eta: “Erori izana gatik goratik behera, / Oraino haren arraza xuti daite bera; / Elgarrendako fidel egoiten bagira, / Hark utzi landariak zabalduko dira.” (4. ahap.) (Xarriton, aip. lib., 102-3). Beste kantu batean “Euskalerrriak adoratzten du arbola saindu hori” dio (“Haitza”ren moldatzaileari”, 195. or.).

Beraz Gernikako Arbolaren sinboloa euskaldun guztiena izan da, eta duela mende bat ere bai, adibideetan ikusi dugunez.

4.2.9. Arbaso edo asaba zaharren aipamena ere orokorra da Iparralde, Hegoalde eta atzerriko bertsogileetan. Nahiz dela iragana goraiatzeko (Elizanbururen “Eskuara eta Eskualdunak”), etorkia azpimarratzeko edo etsenpluzat hartzeko, haien jokaera edota bizitze moduagatik. Esaterako, eta besteak beste, sorlekuan bertan bizitzeko edo ez kanpora joanez. Ikus bedi, adibidez, M. Arruperen “Biba Eskal Herriak eta biba gur’atzinekoak” (*A. Abbadiaren koplarien guduak*, 261, 272. or.), edo “Arbasoek bazuten”.

4.2.10. Sorterriaren amodioa eta goresmena agertzen da olerki batzuetan. Euskal Herria, bizitzeko eta bereziki euskaldun egoteko toki laketa omen. Aipatu ditugu Elizanburu eta Martin Hazpandarra. Hona zer dioten “Eskualdunak” kantuaeren (Donibane Lohitzun, 1894) egileek: “Biba beraz goraki, biba Zazpiak bat! / Iduri dute kasik zeruko xoko bat”. Bozkario eta goresmenezko tonua nabari da hemen, Festetako bilkurei ongi zetorkiena, euskaldunei buruzko kantuetan tonu ezkor eta negartia ez baita eskas.

Habia edo ohatzearen irudia ere azaltzen da kantu honetan: “Lanean nekhatuz da Eskualduna bizi: / Bainan halarik ere, Eskualdun etxea / Maiz ohatze pullit bat xoriñoz bethea” (11. ahap.). Geroago Oxobik irudi bera erabiliko du (“Etxea”, *J. Moulrier Oxobi. Alegiak eta Poemak*, EEE, 1992, 99. or.).

Antzeko tonu eta irudiak eskeintzen dizkigu J. Artolak ere konparazio alegoriko honetan, adibidez: “Kabi polita leku onian / .../ ala berian azaldutzen da / Euskalerrria munduan; / zazpi umetxo egatzen diran / bezela bere onduan, / pipirripiak egiñaz pozez / beren izkera gozuan, / modu berian zazpi senide / gabiltz pozkida osuan” (1903). Baita hau ere: “Euskalerrriko kabi ontatik / irten dira Ama-gana / seme jakintsu oso pizkorrak” (Bilintx, Manterola, Abbadie, Duvoisin).

Azkenik, ohargarri da, Zazpiak Bat leloa gaztelaniaz eta frantsesez ere agertzen da inoiz, kutsu politiko nabarmeneko poesia batzuetan. Adibidez, ondokoan, Euskariarekin lotuta. “Artá (?)...Guizonak!” (A los vascongados de Bahía Blanca, por H. G. de A. (Andoain) du izenburu: “¡Zazpiak Bat! como consigna santa, / es la frase adoptar, de guerra el grito / y atrás el invasor; nunca su planta / hollar debe la tierra sacrosanta / que ostenta por coraza, montañas de granito”. (XII. ahap.; *La Baskonia*, 1900, 166). Frantsesez, ikus “Aux Basques!” (*Eskualduna* 825, 1903).

5. Ondoren, Zazpiak Batek XX. mendean Iparraldeko poeta eta idazle batzuegan (Oxobi, Barbier, Elissalde, etab.) izaniko jarraipena aipatuko dut laburki.

5.1. Oxobiren “Zazpiak Bat!” kantuak, “Ume eder bat” airearekin kantatzekoak, Zaldubirenaren egitea du (*Boz, oihu, deihadar, nigar*, 1913. lk. A. Beolaren edizioa, “Klasikoak” bilduma, EEE, 1992, 226-228).

ZAZPIAK BAT

1. Nehork ez daki lehen zer ziren eskualdun aita larriak;
Den jakintsunak ezin tu jakin orduz iragan berriak:
Ditaken toki garbienean noizdanik diren jarriak,
Nondik dituen aki-haizeak lur huntarat ekarriak.

2. Frantzian hiru: Baxenabarre, Lapurdi' ta Xuberoa
Espainian lau: Biskai, Alaba, Nabarra ta Gipuzkoa...
Zazpi herriek zer bat daukate sortudanik betikoa:
Librotasuna beiratzekotan bihotz guziz beroa!

3. Erromanoak zagozilarik orotan hurbil nagusi,
Orai duela hogoi bat mende gutaraino ziren jautsi;
Aise zituzten bertze jendeak beren hartarat iretsi
Eskualdun haurrak bezalakorik nehon etzuten ikusi!
4. Eskualdun gaitza beldurrik gabe, buru has zagon guduan,
Borthizki joka, begiak sutan, ezpata xoil bat eskuan;
Ikharan oro zauzkatelarik irrintzinek inguruan!...
Erromanoek bakea laster utzi zakoten orduan.
5. Gudukariak multzoka dire geroztik hemen agertu,
Guziak zalu peñen gainetik aitek dituzte lehertu.
"Karloman" bera nigar eginez Frantzian barnan da sartu
lloba "Rolan" hil dakotela baita bidean ohartu...
6. Moroek aldiz gure fedea nahi zaukuten ebatsi;
Bertzer bezala, heier zer ziren arbasoek erakutsi;
Bere zituzten lur eremuak izan gatik ere hertsi,
Erdaldun batek etzuela ez hango mugetarik hautsi!
7. Eskual Herriak horra non zuen zenbeit menderen bakea;
Zazpi ahizpak airos zagozin iganik bide nekea,
Familietan bat zen orduan haur guzientzat legea,
Den ttipienak etzuelarik ezagutzen ahalgea.
8. Elgarretarik gaituztelakotz gaixtakeriaz berextu,
Erdaldun askok diote beraz odolez girela hustu...
Egin bezate, samur gorrian, sugeak bezenbat hixtu,
Gure bihotza bethi ber bera thona batek ez du histu!
9. Gure gogoak berextekotan eman dute Bidassoa,
Ai! Zabaldurik ere nolezpeit gur'artean itsasoa,
Batzuer eta bertze haurrider ebats zezaketen soa,
Bainan bihotza ginuen orok beiratuko bat osoa!!
10. Zazpi ahizpak oraino mintzo dire hitz eder beretan;
Norbeit eskuaraz jabetu nahiz ager baledi lanetan,
Gudukatzeko xuti litazke heien haur guziak betan
Aita zaharren irrintzin gaitzak adiaraziz airetan!
11. Odol beretik sortu semeak elgarrentzat anai gauden
Ait'amen aitek utzi legeak beiratzeko bethi lerdan;
Ez dugu behin arrotzetarik dugun bezenbat ukanen,
Xuxen ibiliz guk tugu bertzer irakaspenak emanen!
12. Gu bezain jende zaharrik orai munduan zonbat da, zonbat?
Geroan ere nork iraunen du berdin hola guk bezenbat?
Aitak lanari zoazkon gisa bagira lotzen orobat
Herritar orok eginez oihu: bethikotz ZAZPIAK BAT!

5.2. Aitzol literatur kritikari eta ideologo abertzaleak bere kazetalan batean¹⁸ dio Bidasoaren pisua sentitzen bazen ere, mende anitzetan mugarik ez zela izan, ez politiko ez

18. "Unión inter-estatal vasca. Historia y poesía", *El Día*, 1932, IX-14).

salerosketakorik, benetako muga euskaldunen izpiritu indibidualista izan dela. Euskal poetak Italia (Manzoni) eta beste herrietakoak baino apalagoak izan direla batasuna kantatzen. Eta bereziki lapurtar poetek senti dutela euskal batasuna kantatzeko premia, nahiz badiren Euskal-Herriaren bazterrean ere beste batzuk.

Lapurtarren artean Elissalde eta Barbier aipatzen ditu, Zaldubiz gainera. Aitzolen arabera, Elissaldek batasun politikoa eta Euskal Herri osoan euskaldunen nausitasuna nahi zituen: “Hortakotz ez ginuke guk bear nausirik! / Elgarretarat beraz Zazpiak bildurik / Ez dugu onetsiko Herrian kaskoinik!”. Bestalde, Barbier-en metafora ausart eta irudimentsuak goraiatu zituen. Adibidez: “Zazpiak zerutikan jautsi izarrak” edo “Arranoaren umeak oro, dituzu”.

Aitzolek batasun gogoia ikusten du Iparraldeko bilkuretan eta batasun jeltzalea predikatzen du. Esaterako, Eskualtzaleen Batzarra delako erakundea “la futura unidad de todos los vascos en JEL” izan dadin nahi luke berak. Ohar bedi, bestalde, Aitzolek, Euskal Festen tradizioa jarraitzen duela Errepublika garaiko Euskal Egunen antolakuntzan.

5.3. “Zazpiak Bat” Broussaintzat bazen zerbait. Hauxe dio J. Etxeparek Hazparneko auzapez eta euskaltzainaz:

“*Zazpiak Bat eta libro*, bizi zeno eta beti fede berarekin hitz horiek zituen irakurtzen bere baitan. Gure mendi xoragarrien artean erresumaño bat bezala bildurik zituzken ikusi nahi, zazpi probintziak; ikusten ere zituzken ametsetan haren begiek Gernikako arbolaren itzalpe eztian.

Aspalditik horrela gogoan zaukan, Eskual Herriaren karialat, lur huntako populu ttipi guzien berez bere jartzea. Badakizue ondar gerlan nolako solasak ibili diren hortaz munduan. Guk uste obrak ez diren izanen solasen araberako. Azpitik atxikitzea ez askiz, handiek ttipiak zapatuko dituztela eta lehertzerainokoan hertsatuko gu beldur. Ohore hargatik bertzela gauzen ezartzeari lehiatzen diren Broussain-en iduriko gizoner.

Odol bereko gizonen batasunaren lokaririk zailena mintzaia zitzakon; hortik eskuararen alderateko haren atxikimendu bero, argi, osoa. Gure auzoek beren Akademian sar-arazia baitzuten berriki, etzen itsura.” (J. Etxepare, *J. Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak* (I. Euskal Gaiak, 184-5, “P. Broussain midikua (1859-1920)”).

5.4. Zazpiak Bat goiburua Iparraldeko gazte mugimenduetan ere izan du jarraipena. Adibidez, 1943an Eskualdun Gazteen Batasuna sortzen delarik Uztaritzen (“Fédération des Jeunes Basques pour la défense de la culture basque”) gazteen 150 ordezkari beren atxikimendua adierazten diote dibisa tradizional honi (Larronde, J.-Cl., “La culture basque sous l’occupation”, *Gerra eta literatura*, Eusko Ik., Oihenart 14, Cuadernos de Lengua y Literatura, 227).

6. Laburbilduz: Lehenik zen ametsa (Larramendirena). Gero, euskal intelektual batzuen begi irekitzea, Euskal Herri osoa ezagutu nahiz, edo hegoaldekoen elkartasuna bultzatuz. Ondoren, pizkundea etorri zen, duela mende bat. Orduan asmatu zen “Zazpiak Bat!” goiburua, Euskal Jai eta bilkuretan oihukatu eta kantatu zutena, odol eta hizkuntza berak haurride egiten zituela ezagutzeko elkarren artean eta arrotzen aurrean. Ideologiaren aldetik, Iparraldeko xuriek indarra hartu bazuen ere, Hegoaldean eta atzerrian ere zabaldu zen joera bateko eta besteko poeta eta idazleen artean.

Mende zaharraren bukaera eta berriaren hasieran Lore Jokoen desagerpenarekin indar-gutxituta gelditu zen, nahiz autodeterminazioaren printzipioaren aldarrikapenarekin batera iraun zuen batzuegan (Mendiague, Broussain). Hendaia eta Hondarribiko bilkuren (1901,

1902) porrotak eta Lehen Mundu Gerrak ere kolpe handia eman bide zion, segurki, eta gero Espainiakoak.

Zazpiak Batek Euskal Herriaren osotasuna eta zatien arteko lotura azpimarratzen du, lokarri nagusi erreal, eraginkor eta orokorrentzat euskara ezagutuz. Nahiz, beste osagai eta sinbolo ideologiko-politiko batzuekin ere elkartzen den, egileen arabera (katolikotasuna, foruak, Gernikako Arbola edo Haritza etab.).

Beraz "Zazpiak bat" izan nahia gurari bizi bihurtu zen duela mende bat. Eta geroztik zerbait itzali bada ere, ez da hil izan eta ez da hilko ere, guk nahi ez badugu. "*Zazpiak Bat* res-tera la devise de l'Avenir" idatzi zuen Donibaneko Euskal Jaiei kronikalari suhar batek (*Eskualduna*, 274, 1892). Halabiz.

BIBLIOGRAFIA

- Anton Abbadiaren koplarien guduak (1851-1897). Bertso eta aire zenbaiten bilduma.* Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, Donostia 1997 (edit. P. Urkizu, P. Xarriton eta P. Intxaurrendietaren laguntzaz).
- P. J. ARANBURU et alii, *Klaudio Otaegi (1836-1890)*, IV. Gerriko Ikerlan-Sariketa, Eusko Jaurlaritz, 1993.
- Ch. BERNADOU, *Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893. Suivi de la Marche de saint Ignace et autres poésies basques avec musique.* Bayonne, Lasserre, 1894.
- Ch. BERNADOU, *Zazpiak Bat*, Bayonne, L. Lasserre, 1895.
- Bertsolaritzaren historia*, Etor, 1991, T. I, II.
- Eskualduna* kazeta (1878-1944).
- Euskal-Eria* aldizkaria (1880-1918).
- Felipe Arrese ta Beitia. Olerkiak*, Euskal Idazleak, Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1956. A. Onaindiaren hitzaur.
- Gratien Adéma. Kantikak eta neurutzak*, EEE, 1991 (A. Bengoetxearen ediz.).
- La Baskonia. Revista ilustrada eusko-americana de Historia, Literatura y Arte* (1893-1907).
- Mendiague, J., *Zazpiak Bat. Eskualdun kantuak, 1900.–Jose Mendiague (1845-1937). Haren bizia eta haren kantuak.* P. Xarritonen ediz., Etor, 1992.
- Oeuvres du chanoine Adéma*, RIEV II, III.
- Jules Moulier "Oxobi". Alegiak eta Poemak*, EEE, 1992 (A. Beolaren ediz.).
- P. M. OTAÑO, *Alkar. Poesías escogidas de P. M. Otaño (en idioma euskaro)*, B. Aires, La Baskonia, 1904.—*Alkar*, Donostia, Iñaki Deuna, 1930, Aitzolen hitz.
- Revista Euskara*, 1878-1883, I-VI t.—(Berrargit.) Eusko Ikaskuntza, 1996.
- XARRITON, P., *Jose Mendiague (1845-1937). Haren bizia eta haren kantuak*, Etor, 1992.
- ZELAIETA, A., *Foruak eta euskal literatura*, Kriselu, 1978.